

# **IZAR ETA ZENAIDA: INDAR MAGIKOA** antzezlan

Taldea: **EIDABE**

Gidoia eta Zuzendaritza: **Galder Perez**

**Pabellón 6 (Bilboko Zorrotzaurren)**

**Irailaren 30ean, estreinaldia.**

## **KOLORE ANITZEZ MARGO DEZAGUN MUNDUA**

Ipuin klasikoetan bezalaxe **Izar eta Zenaida, Indar magikoa** ikuskizunean bada gaizto maltzur-maltzurra eguneroko bizitza suntsitu nahi duena. Keator du izena eta zuri beltzez azaltzen zaigu haren espazio-ontzian. Zein da indar maltzur honi aurre egin diezaiokeen indar magiko bakarra? Elkartasuna.



Elkartasun haize horiek ibili ziren Ibaizabal itsasadarrean gora, **Eidabe** kultur enpresak bere azken antzezlan estreinatzeko Zorrotzaurren dagoen **Pabellón 6** aretoa hautatu baitzuen. Elkartasuna aldarrikatzen duen ipuin honek bi mundu besarkatzen ditu. Alde batetik, euskal neskatila bat dugu. Play Stationekin kateaturik eta gezurretan ibiltzen dena eskolara ez joateko. Beste aldetik, Kubako neska saltsero bat saskibaloian aritzea gustuko duena. Laster konturako dira biak batera indar magiko handi bat sortuko dutela. Elkarrekin eta elkarlanean lortuko dute halabeharrez bete behar duten misioa: mundua salbatzea. Ez da lan makala!

**Izar eta Zenaida, Indar Magikoa** antzezlan biziki ikusgarria da. Gaurko estetika eder eta erakargarri jantzita dago. Nabarmen geratzen da kolore aniztasuna. Komiki onenetan bezalaxe, irudiek begirada hurbil eta konplize bat dute. Proiekzio landu eta ederren bidez antzezlanaren eszenografiak mundu magiko harrigarria eskaintzen digu. Ederra zinez sortu duten giroa eta estetika. Arte-lan naif honek handi egiten du hurrei begira egin dagoen antzerki-lana.

Estetika gozo eta liluragarriz gain, kantak ditugu unerik gogoangarrienak. Umorez jositako kantak eta dantzak dira. Karibe eta Kantauriko haizeak bereganatzen dituzten joko alai hauek irribarrea erraz sortarazten dute. Zuzen eta artez abiatzen dira kanten berbak. Mezua argia eta garbia da. Zailtasunei aurre egiteko bide bakarra elkartasuna da. Gaur egungo egoera latzean ezinbesteko mezua.

Elkartasunaren oinarria laguntasunean datza. Horrela, laguntasunaren aldarrikapena nabarmen ageri da istorioan zehar. Mundu individualistak ezer gutxi eskaintzen du, lagunaren unibertsoaren aurrean. Lagunak jolasteko, lagunak partekatzen, lagunak bidea egiteko... Aktore biek ederto gorpuzten dituzte euren pertsonaiak. Bata mendebaldekoa, bestea tropikokoa. Bata traketsa da, besteak dantzarako grina izugarria du. Interpretazio lasai eta pausatua umeen arreta bereganatzen du.

Ume-antzerki klasikoetan bezalaxe, ikusleek esku hartuko dute gaiztoaren planak zapuzteko. Bat egingo dute Izarrekin eta Zenaidarekin. Denok batera bide berean, *Lortuko dugu elkarrekin geure eskuen boterearekin!* leloa lau haizetara oihukatuz. Hankaz gora dagoen mundu zuri beltzari erantzuteko kolore anitzez margotuko dute geroko mundua.

Eidabe Bilboko kultur enpresaren seigarren sorkuntza da. Gaur arte, animazio eremuan hiru lan eder kaleratu du, arlo honetan maisuak direla erakutsiz. Horrez gain, bi haur-antzezlan interesgarri estreinatu ditu, dramaturgiaren abiapuntua bertoko ideia originalak izanik. Oraingoan haur-antzerkian aurrera pausu nabarmena eman du. Berrito ere, gurean asmatutako istorio bat hartuta, **Izar eta Zenaida. Indar magikoa** lan ederra tauletara eraman du, estetika eta kanten bitartez gozatzeko aukera ematen duena. Mezuak, berriz, gure txikien heziketa indartuko du elkartasunaren bidean.

Imanol Agirre

